

## **Sanz ez da Nafarroa**

*Euskaldunon Egunkaria, 1997-02-09: 3.*

Inoiz ezin dezake pertsona batek, handia izatea suertatzen bada ere, herri oso bat ordezkari. Nafarroaren historiak duen neurrikoa gutxiago. Politikoa berez handia denean sortzen da fenomenoak. Companys bat Katalunian, Agirre Euskal Herrian. Baina Sanz karismagabeak ez du hau sor dezakeenaren eza puntik ere, bistan da; erakutsi duen abilezia bakarra Madrileko Sozialistak merke erosten da, eta oraindik ez dugu preziorik ezagutzen! Nafarroako Lehendakaria zena bere alderdiko lapurrei lapurretan ari zela harrapatu izan ez balute, jai zuen hemen ere eskuineko balazta den honek; sozialista Nafarrak Madriletik saldotan jarri ez bazituen ez zen Sanz oraingo UPN alderdiko buru eta Nafarroako Lehendakari, biak, izatera helduko. Baina, hara!, arrakasta Pirriko honek harrotu egin du, aizu! Pulpitora igo eta sermoitan jarri da Ihauteriak direla eta, handikiro: ETArekin negoziatzen bekatu larria da; nazionalistek jai dute Nafarroan; Alliz ezin da fia, noski; Pérez Lepazararen Lehendakariordea gertuago dauka, baina aldaketa eske hasia da, iraultzaile! Geratzen zaizkan lagun ziurrik sozialistak ditu momentuz, espainolismoan batez ere, baina Espainiak ez dio Nafarroarik gizeneko, ordea, eta nafar gazteriak borrokatu beharko du zerbaiteren alde!